

<p style="text-align: center;">IKASGAIAREN izena 1.4. Argazkigintza eta irudiaren lanketa digitala</p>	<p style="text-align: center;">Kreditoak 6 ECTS. OINARRIZKO HEZKUNTZA</p>
<p>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak Gaitasun orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde-lana Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez. ○ Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. <p>Gaitasun espezifikoak:</p> <p>-Ezagupenak: Ikus-entzunezko hedabideetara aplikatutako teknologien ezagutza teoriko-praktikoa eta aplikazioa (argazkia, irratia, soinua, telebista, bideoa, zinema eta multimedia euskarriak). 1.12. Irudi espazialaren eta espazioko errepresentazio ikonikoen ezagutza —hala irudi finkoan nola ikus-entzunezko irudian—, zuzendaritza artistikoaren osagaiena barne. Ikuspegi estetiko eta narratibotik begiratuta irudiek eta soinuek ikus-entzunezko euskarrietan eta ikus-entzunezko teknologietan dituzten harremanak ere ezagutza horien barruan sartzen dira. Baita ikusi-komunikaziorako eta irudiaren bidezko pertsuasiorako espezifikoak garatutako eredu psikologikoen ezagutzak ere.</p> <p>-Treibetasunak: 2.5. Argazki-produkzioa antolatzeko teknikak eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna, bai eta irudi finkoaren alorreko sorkuntza-teknikak eta sorkuntza-prozesuak erabiltzeko ere, hala ingurune analogikoetan nola digitaletan. 2.7. Irudiaren konposizioaren teknikak eta prozedurak ikus-entzunezko euskarrietan aplikatzeko gaitasuna, lege klasikoen eta irudiaren historiaren higitzaile estetiko eta kulturalen ezagutzatik abiatuta, informazioaren teknologia berrien bitartez. 2.19. Edozein eratako ikus-entzunezko dokumentuak datu-base batean bilatzeko, hautatzeko eta sistematizatzeko eta bitarteko digitalen bidez haiek ikus-entzunezko euskarri desberdinetan erabiltzeko gaitasuna.</p>	
<p>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari Ikasgai honen helburua ikasleari, ikus-entzunezko komunikazioaren etorkizuneko profesional gisa, argazkigintzaren eta irudiaren oinarriak eskaintzea da.</p>	
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa: tailerrak, praktikak, tutoretzak. ○ Elkarlanean oinarritutako metodologia. 	
<p>Hezkuntza-jarduerak. Jarduera presentzialak (%40):</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskola magistralak eta teorikoak. ✓ Kasuen azterketa. ✓ Praktikak: argazkigintza eta azken ukituak. ✓ Tutoretzak. 	

- ✓ Banakako eta taldekako lana.
- ✓ Ebaluazioa.

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa.

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

Ebaluazio jarraitua eta prozesu-ebaluazioa:

- ✓ Praktiken portafolioa: egindako lan guztiak (eskola presentzialak eta jarduera ez-presentzialak).
- ✓ Proba teorikoa.
- ✓ Tutorearen aldizkako gainbegiratzea.
- ✓ Ikaslearen autoebaluazioa eta taldekakoa.

Edukien laburpena

ARGAZKIGINTZAREN TEKNIKA

- Argazki-kamera eta formatu mota desberdinak: sarrera.
- Objektiboak: Normala, teleobjektiboa, angeluzabala, arrain-begia.
- Fokatzea: automatikoa eta eskuzkoa.
- Esposizioa eta fotometria.
- Eremu-sakontasuna.
- Argiztapena: zurien balantzea eta kolore-balantzea.
- Irudiaren estetika: enkoadratzea eta konposizioa.
- Flasha.

IRUDIAREN LANKETA DIGITALA

- Irudi elektronikoa.
- Irudiaren bereizmena.
- Kolorea, itzalak eta kontrasteak.
- Software tresnak: Adobe Photoshop.